

## DONOSTIYAN ZAPATARI FESTA

1827-garren urteko, astelen inauteri eguerdiyan.

### Kriskitin.

Ariya biurtutzian: { Aricho ori ondo biurtu  
Biotz nereko laztana,  
Elziak ondo irakin gabe  
Echetik nator zugana,  
Plazara lasterka zuregana  
Jakiñik dantzan zerala.

### Kontrapasa.

Ariyari pikia ematian: { Nere maitia dago  
Tableru gañian,  
Umore onarekin  
Kantari lanian.  
Eskubetan arturik  
Pikia ta ariya,  
Nere kutuncho goño  
Buru galgarriya.

### Arre pocho.

Zoluba biguntzian: { *Chatka, chatka*, ari da  
Zure matrilluba  
Arriparen gañian  
Biguntzen soluba:  
Eta soñucho arrek  
Emen barrenian  
*Chatka, chatka*, egiten dit  
Nere biotzian.

**Iriyarena.**

Larrubari koška  
egitian: { Nere orzchuak  
Osocho neriak  
Begira miñ artu  
Begira miñ artu  
Larrubari  
Kontuz agarratu.

**Zapatarikoa.**

Zapatarari arman  
puntadak ematian: { Polikicho eta guztiz berdiñ  
Puntubak ondo artuta  
Nere zapataricho maitiak  
Orman sartu du zapata.

**Ariñ-ariñ.**

Leungarriarekiñ  
zapata apaintzian: { Leungarriyarekiñ  
Zapata apaintzen  
Nere guztikozchoa  
Ari da orainchen,  
Baldin badu biotza  
Nik bezin leuna  
Lastercho izango det  
Echian laguna.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.

